AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

1303

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 22koa, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, Trafiko Zuzendaritzako goi-kargudun baten idazkari-lanpostua izendapen aske bidez betetzeko deialdia iragartzeko dena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Miren Garbiñe Ugarte Muguruza andrea izendatzea Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzako goi-kargudun baten idazkaria (kodea: 520010; dotazioa: 46) izateko.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2013ko martxoaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 22a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
JOSEBA IÑAKI GURTUBAI ARTETXE.